

UDAL-BATZARRA 14/04

UDAL-BATZARRAK, 2004ko Abenduaren 28an EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Fidel Azpiroz Arrillaga

ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Otermin Garmendia

M^a Carmen Egurza Salaberria

Mikel Zubillaga Galarraga

Nieves Alarcos Martinez

IDAZKARIA:

Nekane AGIRRESAROBETE ETXEBERRIA

ANOETAko Udaletxean, 2004ko abenduaren 28an iluntzeko zortzirak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik. Kepa De la Iglesia Visitación, Jesus M^a Arsuaga Lizaso, Juan Jose Martin Zubelzu eta Silvia Dos Santos Leite Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

1.- 2004KO UZTAILAREN 29AN ETA AZAROAREN 9AN OSPATURIKO AKTEN ONESPENA.

Udalbatzak 2004ko uztailaren 29an eta azaroaren 9an egindako bilkuren aktak irakurri eta aho batez onetsirik geratu dira.

Son leidas y aprobadas por unanimidad de los reunidos las actas de la sesiones celebradas con fecha 29 de julio y 9 de noviembre de 2004.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA, 452TIK 503 BITARTE, BIAK BARNE.

Fidel Azpiroz Arrillaga Alkate Jaunak egindako ebazpenen berri eman du, alegia, 452tik 503ra, biak barne; korporakideek jakituen geratzen direlarik.

El Sr. Alcalde D. Fidel Azpiroz Arrillaga da cuenta de las resoluciones dictadas correspondiente a los números comprendidos entre el 452 al 503, ambos inclusive; dándose la Corporación por enterada.

3.- JUAN JOSE MARTIN ZUBELZU, EAJ-PNV/EA TALDE POLITIKOKO ZINEGOTZIAK KARGU UZTEA.

EAJ-PNV/EA koalizioko zinegotzia den Juan Jose Martin Zubelzu jaunak aurkezturiko kargu uztearen idatzia ikusi ondoren.

Alkateak partaideei ondorengoa adierazten die:

“Juanjok kargua uztea proposatzen du eta ematen duen onartzea proposatuko nuke”.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehena.- EAJ-PNV/EA kandidaturako zinegotzi hautetsia den Juan Jose Martin Zubelzuren kargu-uztea onestea.

Bigarrena.- Akordio honen berri, Hauteskunde Batzorde Zentralera bidaltzea.

Visto el escrito de dimisión presentado por D. Juan José Martin Zubelzu, concejal electo por la coalición EAJ-PNV/EA.

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Aceptar la dimisión de D. Juan José Martin Zubelzu como concejal electo por la candidatura EAJ-PNV/EA.

Segundo.- Dar traslado del presente acuerdo a la Junta Electoral Central.

4.- ANOETAKO UDALAK HERRI IRAKASKUNTZA MANKOMUNITATEARI 2004 EKITALDIRAKO EKARPENA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Herri Irakaskuntza Mankomunitateak ziurtagiri bat igorri du udal honetara. Bertan, 2004ko azaroaren 25ean ospaturiko ohizkanpoko bilkuran “Aprobación, si procede, de aportación de los ayuntamientos mancomunados para el ejercicio 2004” akordioaren berri ematen da.

Alkate jaunak bertaratutakoei ondorengoa adierazten die:

Visto el certificado remitido por “Herri Irakaskuntza Mankomunitatea” en el que se da cuenta del acuerdo adoptado por dicha entidad en la sesión extraordinaria celebrada el día 25 de noviembre de 2004 con relación a “Aprobación, si procede, de aportación de los ayuntamientos mancomunados para el ejercicio 2004”.

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:

“Aspaldiko urteetan lortu ez dena lortu da, gutxienez urtebeteko margenarekin mankomunitateko aurrekontua eskutan edukitzea. Horrek esan nahi du mankomunitateko kontuak ere nahiko aurreratuak daudela”.

Ondoren, Alkate jaunak Otermin zinegotzi jaunari ematen dio hitza eta honek zera dio:

A continuación el Sr. Alcalde cede la palabra al concejal Sr. Otermin quien manifiesta a los presentes:

“Eguneratzeko ibili dira, 2005 urtekoa urtarrilean aprobatazea espero dugu eta horren arabera azaltzen dira kantitate hauek bai Anoeta eta Iruran. Azaltzen dena da gure aurrekontutan agertzen den berdina, beraz, espero dut ez problemik izatea”.

2004ko azaroaren 25ean mankomunitateak ospaturiko ohizkanpoko bilkuran onetsitako akordioaren arabera, partaideek aho batez erabakitzen dute, Herri Irakaskuntza Mankomunitatearen alde, 2004 ekitaldiko aportazio modura 84.000 eurotako zenbateakoa onestea.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos aprobar la aportación de este ayuntamiento a la Mancomunidad Herri Irakaskuntza para el ejercicio 2004 por importe de 84.000 euros, según acuerdo adoptado por dicha mancomunidad en sesión extraordinaria celebrada con fecha 25 de noviembre de 2004.

5.- ANOETAKO UE-A8/A9 AREA “ORBINOX” XEHETASUN AZTERLANAREN PROIEKTUA BEHIN-BETIKOZ ONESTEKO PROPOSAMENA.

Ikusirik, A8/A9 “Orbinox” xehetasun azterlana espedientea .

Visto el expediente “Estudio de detalle area A8/A9 Orbinox”.

Alkate jaunak Otermin zinegotziari ematen dio hitza eta honek dio:

El Sr. Alcalde cede la palabra al Sr. Otermin y éste expone que:

“Gure asmoa zen aprobatazea behingoz bai estudio de detalle eta urbanizazio proiektua baldintzatuta, arkitektuak esaten zuen bezela nahiz eta plano batzuk prestatu behar izan. Kasualitatez, gaur goizean aurkeztu dute plano hauek, hau horrela, ez digu denbora eman ikusteko, arkitektoari pasatzeko. Orduan hobe izango da bertan behera uztea, landu planoak ea betetzen duten baldintzak eta honen arabera aprobatu baldintzatu gabe”.

Hau dela eta, Alkate jaunak proposatzen du puntu hau mahai gainean uztea, gaurko egunez sustatzaileak aurkeztu duen dokumentazioa ikusi bitarte.

Ante ello, el Sr. Alcalde propone dejar el punto sobre la mesa a fin de estudiar la documentación entregada por el promotor con fecha de hoy.

6.- DONOSTIAKO 2. AUZIALDI-ADMINISTRATIBOKO EPAITEGIAREN 196/2004 SENTENTZIAREN BERRI EMATEA.

Alkate jaunak bertaratutakoei ondorengo adierazten die:

El Sr. Alcalde manifiesta a los presentes lo siguiente:

“Hau da lehengo urteko azaroaren 14ko plenoan onartu zuen ejerzito eta guardia zibilaren aurkako mozio bat eta errekurritua izan zen estatu alderditik. Momentu honetan eman dute falloa eta falloa da bertan hartu zen akordioa, mozioaren akordioa bertan behera uztea. Hau ohizko gaia da horrelako gauzetan. Udalari ez dio inolako kostua suposatzen, bakarrik da kontu ematea plenoari sententzi honi buruz”.

Anoetako Udalak 2003ko azaroaren 14ean Ejerzito eta Guardia Zibilari buruz harturiko akordioa dela eta, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 2. epaitegiak eman duen 196/04 sententziaren berri izan du Udaltzako, epaitza, ondorengo delarik:

La Corporación se da por enterada de la sentencia nº 196/04 dictada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 2 de Donostia, cuyo fallo dice como sigue, con relación a la resolución aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Anoeta de fecha 14 de noviembre de 2003 por la que se aprueba la moción relativa al Ejército y Guardia Civil:

“FALLO.- ESTIMADO recurso contencioso-administrativo interpuesto por la Abogacía del Estado en representación de la Administración General del Estado frente a Acuerdo del Ayuntamiento de Anoeta en Plenario de la Corporación de data de 14 de noviembre de 2003 por el que se aprueba moción presentada por E.A.J-P.N.V., sobre “la actuación estos últimos días, de ejército y Guardia Civil.”; declarando la nulidad de dicho Acuerdo por no ser conforme a Derecho, revocándolo y dejándolo sin efecto.- No procede especial imposición en costas.- MODO DE IMPUGNAR ESTA RESOLUCIÓN: mediante RECURSO DE APELACION EN AMBOS EFECTOS, por escrito presentado en este Juzgado en el plazo de QUINCE DÍAS, contados desde el siguiente a su notificación (artículo 81.1 de la LJCA).- Así por esta mi Sentencia de la que se llevará testimonio a los autos, lo pronuncio, mando y firmo”.

Azkenik jakinarazten da bilkurara etorri direnen artean, ondorengo interbentzioak izan direla:

Finalmente se hace cosntar que el público asistente a la Sesión ha tendio las siguientes intervenciones:

2. puntuari dagokionez:

Herritar batek galdetzen du: Nik 454 dekretuari buruz da, faktura bat dago “dedicación alcaldía periodo septiembre 2004” jartzen du 2.412,71 €. Jakin nahi nuke znbateko dedikazio duen, zenbat ordu, zein egunetan

eta horren ziurtagiria eta beste alde batetik legala ote den udaletxeak enpresari ordaintzea edo hori ez litzateke horrela egin behar.

Alkateak dio: Informatuko zaizu, ziurtagiria emango zaizu. Era guztitara hor dago nere dedikazioaren erdia Anoetako udalari ematen zaio eta nik nagoen ordu eta egunak dira: asteartea eta ostiraletan egun osoan eta ostegunetan goizez, non eta beste egunetan bileraren bat edo beste zereginen bat sortzen ez den. Hor daukat malgutasun bat bai lantokian eta bai udalean han edo hemen arazoren bat daudakadenan atenditu ahal izateko. Legala den ala ez den Nekanek esango ditu. Orain arte ez dugu inongo arazorik izan, bere garaiean zerbait landu zen eta inolako arazorik ez zen ikusi, fabrika aldetik ere ez.

Herritarrak dio: hori buruzko txosten bat eskatzen dut, nik uste dut printzipioz bidea egin beharko litzakete bai lantokiarekin eta bai udaletxearekin, ez udalak sariak ordainduta.

Otermin zinegotziak dio: Oker ez banago egin zen errazteko lana bai udaletxean eta bai enpresan eta gainera kooperatiba delako seguritate sozialeko sistema diferentea da, lan gutxiago ematen zuelako, baina nahi baduzu ez da problemik izango txosten juridiko bat egiteko.

3. puntuari dagokionez:

Herritar batek dio: nik ondorengoa irakurri nahi nuke: Martinen kargu uztearen aurrean Anoetako Plataformak zera esan nahi dugu: urte terdi daramagu esanez herriak aukeratu ez zituen zinegotzien dimisioa eskatuz, eta Martinen kargu uzteaz pozten garela baina oraindik badaude beste hiru zinegotzi herriak aukeratu ez dituenak eta hauek ere gauza bera egin dezaten eskatzen diegu, horrela hutsune hauek Anoetako Plataformako zinegotziek bete ditzaten. EAJ bost zinegotzi eta Anoetarrok auzolanean lau zinegotzi. Juanjoren bidea besteek hartze, ea herriak aukeratu ez zituen zinegotziek berdin egiten duten. Ez dakit arazo pertsonalak edo guk egiten ditugun proposamenak zerbaitetarako balio izan duten, guk behintzat hortan segituko dugu.

Alkateak dio: Ez dago gure esku nolabait zuek errebindikatzen duzuen eta berriz hasiko ginategi lehen esandakora, hauteskunde batzuk izan ziren, lege baten arabera zuek ezin izan zenuten parte hartu zuen plataforma deseustatua izan zelako eta horren ondorioz dator gatazka hau dena, gure esku ez dagoenez gai hori, beste instantzi baten eskutan geratzen da. Gure aldetik nahiko genuke, zuen partizipazioa izatea baina guk ez genuen lege hori jarri eta tranpa hori jarri.

Herritarrak dio: Ongi etorri zaizue eta aprobetxatu egin zarete. Orain ere bi zinegotzi ilegal kendu eta hiru geratzen zarete, bederatzi lanegutik, begira a ze koadroa.

Beste herritar batek dio: Nik pertsonalki eskatuko nizueke heldutasun politiko gehiago. Arrazoi hori ez dit balio pertsonalki, ez dagoela zuen esku, zer zarete marionetak? Zuek badaukazue hitzegitea, gauza batzuk onartzeko eskubidea eta ez etorri arrazoi merke horiekin.

Otermin zinegotziak dio: problema orokorra izan da Euskal Herrian eta denok jarraitzen dugu gure partidoak esaten diguna.

Herritarrak dio: badirudi ados zaudetela. Nik ez banago ados jartzen ditut behar diren mekanismoak gauza hori aldatzeko. Ematen du zuek ez duzuela hitzik, ez ahotsik ez ezer. Uste dut ados gaudela egoera hau txarra

dela denontzako eta ez duzue pausorik ematen eta esaten duzuten arrazoi bakarra da ez dagoela zuen esku. Nik uste dut zuk baduzula hitza Fidel, ez ukatu hori.

Alkateak dio: nik dezakedan neurriraino horretaz hitz eginda nago eta lehen esan dudana esango dut: ez dago Fidelen eskutan nahiz eta zuen iritzia hori izan. Zuen iritzia izan zitekeen beste era batekoa baina izan zen plataforma osatzea. PP eta PSOEek jarri zuten tranpa hori eta zuek hor erori zineten, orain niri ez eskatu...

Beste aztergairik ezean, bilkura amaitutzat jotzen da iluntzeko 20 ordu eta 25 minututan; guzti honetaz, ni Idazkariak fede ematen dudalarik.

Si más asuntos que tratar se levanta la sesión a las 20 horas 25 minutos; de todo lo cual, yo el Secretario doy fé.